

Larraintzarko
IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

IKASTURTEA	2020-2021	IRAKASLEA	Onintza Rojas Olazabal
MAILA	DBH 2	ARLOA	Fisika eta Kimika

HELBURUAK, OINARRIZKO GAITASUNAK, EDUKIAK, EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

24/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duena.

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/


OINARRIZKO GAITASUNAK

- Hizkuntza komunikazioa
- Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak
- Gaitasun digitala
- Ikasten ikasteko gaitasuna
- Gaitasun sozial eta zibikoak
- Ekimena eta ekintzailea

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA

1. ebaluazioa	1. Materia eta neurketa 2. Materiaren egoerak 3. Materiaren aniztasuna
2. ebaluazioa	4. Aldaketak materian 5. Indarrak eta higidurak 6. Energia
3. ebaluazioa	7. Tenperatura eta beroa 8. Argia eta soinua

**Edukiek aldaketak jasan ditzakete ikasturtearen beharren funtzioan.*



Larraintzarko
IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

- Mezu zientifikoak ulertzea eta adieraztea, ahoz nahiz idatziz: adierazpen zuzena, hiztegi egokia, ortografia.
- Ulermen eta adierazpenerako beste baliabideak erabiltzea: eskemak, eduki-mapak, marrazkiak, argazkiak, grafikoak, buruketak, ordenagailua, internet, etab.
- Arazoak konpontzeko orduan, Zientziako prozedurekin bat datozen estrategia pertsonalak erabiltzea: arazoa identifikatzea, hipotesiak formulatzea, ariketak planifikatzea eta burutzea, emaitzak aztertzea eta haiek ezagutaraztea.
- Fisika eta kimikako oinarrizko kontzeptuak fenomeno natural garrantzitsuenen interpretazio zientifikoa egiteko erabiltzea.
- Zientziak gizakien bizi baldintzak hobetu ahal izateko egin dituen ekarpenak onartzea eta baloratzea, prestaketa zientifikoaren garrantziaz jabetzea.
- Eguneroko jardueretan pentsamendu zientifikoaren baloreak eta jarrerak erabiltzea eta gaur egun Zientziaren eta Gizartearen arteko erlazioak planteatzen dituzten arazo handien aurrean jarrera kritikoa hartzea.
- Ezagutza zientifikoa, gizarteak historiako une bakoitzean izan dituen ezaugarriei eta beharrei loturiko eraikuntza prozesu gisa baloratzea.


KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

- **AZTERKETAK: %70.** Batz bestekoa egin ahal izateko nota minimoa 4koa izango da. Ebaluazioa gainditzeko, azterketen batz bestekoa gutxienez 5 izanen da.
- **LANAK: %20.** Ebaluazioan batz bestekoa egiteko gutxienez 4 bat atera behar da. Atal honetan, koadernoak, laborategiko txostenak, ateraldiko jarduerak, gelako lanak, etxeko lanak eta ahozko aurkezpenenak baloratuko dira.
→ **KOADERNOA:** atal hauek baloratuko dira: (ebaluazioko azken azterketa egunean ekarri behar da): Antolaketa, txukuntasuna, ortografia, ariketak zuzentzea, lan guztiak aurkeztea, lanaren kalitatea, eta ordena.
- **JARRERA: % 10.** Ebaluazioan batz bestekoa egiteko gutxienez 5 ater behar da. Baloratuko diren jarrerak: euskara erabiltzea, materiala prest izatea, parte hartzea, autonomia, lanak entregatzeko epeak errespetatzea, partaidetza positiboa izatea.

* Ebaluaketan egindako lanen eta azterketen pisuaren arabera, ebaluaketa amaierako kalifikazioan osatzen duten portzentaia aldatu liteke.

BERRESKURAPEN SISTEMA

- Ebaluazio bakoitzaren ondoren berreskurapena egingo da.
- Ohiko deialdian, gainditu gabeko ebaluazioa edo ebaluazioak berreskuratzeko aukera egongo da.
 - Ezohiko deialdian, gainditu gabeko ebaluazioaren edo ebaluazioen berreskurapena egingo da.
 - Lanen eta jarreraren atal berreskuratzeko kurtsoan zehar hobekuntza erakutsi behar da. Kurtso bukaerako jarreran minimoa lortu behar da.



Larraintzako
IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

BESTELAKOAK: baliabideak, metodologia, aniztasuna

- Gelan behar bezala lan egin dezagun, hurrengo jarrerak zainduko ditugu:
 - Azalpenak ematen direnean beharrezko isiltasuna eta arreta mantentzea.
 - Norbaitek ikasgaiari buruzko galderaren bat eginez gero, besteok arreta mantentzea.
 - Elkarri errespetua izatea.
 - Irakaslea gelara heltzen denerako materiala prest izatea.
 - Egunen batean norbait ikastetxera ez bada etortzen, ikaskide bati ea zer landu dugun galdetuko dio eta hurrengo egunerako landuta ekartzen saiatuko da.
 - Etxerako lanak egiteaz gain landutako teoria etxean lantzea eta erreparasatzea aholkatzen da.